

Proiektuaren deskribapena

AKIRA moda arduratsuan oinarritutako marka gaztea da, estiloa, jasangarritasuna eta gizarte-balioak uztartzen dituen. Proiektuaren helburua gazteei aukera ematea da jantzi moderno eta eksklusiboak eramateko, ingurumenaren eta gizartearen zaintza alde batera utzi gabe.

AKIRA ez da soilik arropa-denda bat; komunitate bat da, non moda, sormena eta erantzukizun soziala batzen diren. Diseinu berritzaileen, ekoizpen etikoaren eta tokiko lankidetzaren bidez, kontsumo arduratsuaren aldeko alternatiba erreala eskaintzen du.